

@@@AGINDUA, 2011ko ekainaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Donostian (Gipuzkoa) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatu bat irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena emateko dena.@@@

XXXXXXXXXXXXX jaunak abiarazi duen espedienteaz aztertu da, non baimena eskatzen baita Donostian (Gipuzkoa) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat irekitzeko eta jardunean jartzeko.

Espediente hori Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimena ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxienezko baldintzak ezartzen dituen (2010eko martxoaren 12ko BOE); 1538/2006 Errege Dekretua, abenduaren 15ekoa, hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2007ko urtarrilaren 3ko BOE); 777/1998 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, hezkuntza-sistemaren barruan Lanbide Heziketaren antolaketako alderdi jakin batzuk garatzen dituen (1998ko maiatzaren 8ko BOE); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Baimena ematen da jarraian zehazten den ikastetxe pribatua irekitzeko eta jardunean jartzeko, 2011-2012 ikasturteetik aurrera:

Kode-zenbakia: 20014234.

Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Centro Ramiro Mata».

Titularra: Ramiro Mata, S.A.

Helbidea: Autonomia kalea 4, 5.

Udalerrria: Donostia.

Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

Baimentzen diren irakaskuntzak:

Lanbide Heziketa.

● Familia: Irudi Pertsonala.

○ Ile Apainketa erdi mailako heziketa-zikloa. Edukiera: ziklo 1; 20 ikaspostu, goizeko eta arratsaldeko txandetan.

2. artikulua.- Ikastetxeak indarrean dauden arauak bete beharko ditu, honako hauei guztiei dagokienez: ikaspostu kopurua, eskola-unitate bakoitzean irakasleak

gehienez izango duen ikasle-kopurua, eta agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoa eta hizkuntza-eskakizuna. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

4. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, eta agindu honetan adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion berrikusketa eskatzera.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.